

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA



AURKIBIDEA:

1. BEHARREZKOA DA SOLDATAK IGOTZEA
2. LANGABEZIAK HAZIZ JARRAITZEN DU
3. EUSKO JAURLARITZAKO AURREKONTUEK 17,3 MILIOI EURO DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTARA BIDERATUKO DITUZTE, AZKEN URTEETAN BEZALAXE
4. NAFARROAKO GIZARTERATZE ERRENTAREN FORU LEGEA, EZTABAIDAGAI
5. CAN, HUSTELKERI ETA LAGUNENI MESEDE EGITEAREN ADIBIDE
6. TXIPREN GERTATZEN DENA, EUROPAR BATASUNAREN PARTE DA
7. PROPOSAMENA: BAI ESCRACHEI, BAI ADIERAZPEN ASKATASUNARI
8. PROPOSAMENA: DIRU-SARRERA HANDIAGOAK, GASTU HANDIAGOA

1. BEHARREZKOA DA SOLDATAK IGOTZEA

Europar mailako lan kostuei buruz informazioa argitaratu du Eurostat-ek. Europako Batasuneko estatu ezberdinen artean ezberdintasun handiak daudela orduko lan kostuetan uzten du agerian. Informazio honek Honela, 2012an, Norvegiak izan du orduko lan kosturik altuena (44,3 euro), Danimarkak (37,5), Suediak (36,4), Belgikak (36,3), Luxenburgok (33,9), edo alboan daukagun frantziar Estatuak (33,6) jarraitzen diotelarik. Bulgariak izan du lan kosturik baxuena (3,4 euro orduko), Errumaniak (4,2), Lituaniak (5,5), eta Letonia (5,7) izan dituelarik atzetik. 27-EBko lan kostua 23 eurotakoa izan da, eta Euro Gunekoa 27,5 eurotakoa (era honetako alderaketak burutzerakoan egokiagoa da Euro Gunea erabiltzea).


Estatuko erkidego autonomo ezberdinen orduko lan kostuei buruzko informazioa argitaratzen du INEk, eta honek, hein baten, Hego Euskal Herriko lan kostua europar ingurukoarekin alderatzea ahalbidetzen du. Informazio honen arabera, 2012an, Euskal Autonomi Erkidegoko orduko lan kostua 25,2 eurotakoa izan da (Euro Gunekoa baino 2,3 euro baxuagoa), eta Nafarroakoa 22 eurotakoa izan da (5,5 baxuagoa). Hau da, EAEko lan kostua Euro Gunekoa baino %8,4 baxuagoa izan da, eta Nafarroako, %20 baxuagoa.

Hego Euskal Herriko orduko lan kostua Euro Gunekoa baino baxuagoa da beraz, eta Europako Batasuna osatu zuten lehenengo 17 estatuen gehiengoarenaren azpitik dago, baita frantziar Estatuaren atzetik ere. Beraz, eta patronalak esaten duenaren aurka, beharrezkoa da soldatak igotzea:

- I. Horrek eros ahalmenaren igoera ekarriko du, ekonomiaren hazkundera bultzatuz, eta langabeziaren eta pobreziaren jaitsiera mesedetuz.
- II. Soldata altuagoek ez dakarte konpetitibitate gutxiago, enpresen mozkin baxuagoak baizik, eta beraz, aberastasunaren banaketa hobetuko. Gogoratu behar da azken urtetan lan errenten partehartzea nabarmen murriztu dela aberastasunaren banaketan, enpresarial eta kapital errentena handitu delarik.
- III. Orokorrean, lan kostu altuagoko herrialdeek langabezi baxuagoak dituzte, murrizketa gutxiago sufritzen ari dira, eta gizarte ongizate garatuagoak dituzte. Lan kostu baxuagoak dituzten herrialdeekin konkurrizteak egungo egoera gehiago okertzea ekarriko luke.

Gure lehiakortasuna soldata baxuetan oinarritu behar dela defendatzen dutenek, Hego Euskal Herriko langileek Bulgariako soldatak izatea nahi duten ala ez azaldu beharko lukete. ELA ez dago horretarako prest.

ORDUKO LAN KOSTUAK. EUROPAKO BATASUNA.
2012



Iturriak: Eurostat, INE

2. LANGABEZIAK HAZIZ JARRAITZEN DU

Enplegurako Zerbitzu Publikoan izena emaniko pertsonen kopurua 235.827akoa izan da Hego Euskal Herria martxoan, otsailean baino 1.297 gehiago, eta 2012ko martxoan baino 22.357 gehiago. Hau da, langabe kopurua %10,5a hazi da urte betean, 27-EBaren %6,9aren aldean.

Era honetara, langabezi tasa %17,9an kokatu da, 27-EBkoa (%10,9) baino 7 puntu altuago.

Europako Batasuneko 27 estatuetatik, Grezia (%26,4) eta espainiar Estatuak (%26,3) bakarrik daukate langabezi tasa altuagoa (Portugal ere, %17,5arekin, HEHaren azpitik kokatzen da).

Gainera, zerrendetan izena emaniko pertsonen ia erdiak (%44,9) ez du inolako langabezia saririk jasotzen, etengabe haziz doan portzentajea (%42,7koa zen duela urte bete). Zerrendan daudenen %34,4ak bakarrik kobratu du kotizaziopeko prestazioa (diru kopururik altuena

duena), eta portzentaje hau murriztuz doa etengabe (%35,6koa zen 2012ko martxoan).

Hau da, langabeziak haziz jarraitzen du, inolako langabezia saririk jasotzen ez duten pertsonen portzentajea haziz doa, eta langabezia sarien zenbatekoak gero eta baxuagoak dira. Aplikatzen ari diren politika neoliberalen ondorioak dira hauek, bereziki, onartzen ari diren erreforma guztienak, enplegua suntsitu eta miseria handitu besterik egiten ez dutenak.

Enplegurako Zerbitzu Publikoko informazioak, sinatzen diren kontratuen datuak ere biltzen ditu. Honela, urteko lehen 3 hileetan 194.084 lan kontratu sinatu direla ikus daiteke, hauen %92,1a behin-behinekoa izanik. Hau da, behin-behinekotasuna murrizteko ustezko helburuarekin buruturiko erreformen ondoren, behin-betiko kontratazioak oso baxua izaten jarraitzen du (sinaturiko kontratuen %7,9a).

3. EUSKO JAURLARITZAKO AURREKONTUEK 17,3 MILIOI EURO DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTARA BIDERATUKO DITUZTE, AZKEN URTEETAN BEZALAXE

Diru sarrerak bermatzeko errentara bideratuko den partida ekonomikoa mantentzea, pobreziaren eta gizartearen beharrezanetara erantzuteko eginbeharreko esfortsu bat moduan saldu da.

Azken ekitaldietan (2011-2012) DSBerako erabilitako kopurua berdina izan da. Gogoratu beharra dago laguntzak izateagatik behin zenbatekoa bukatzen denean, Gobernuak ez daukala beharrezinei aurre egiteko betebeharririk, horregatik eskatzaile asko laguntzarik gabe geratzen dira. Hau da, berez azken urteetan gertatu dena, aurrekontuetako kopuruak eskas geratzearen ondorioz, gizartearen premiak ez dira asetu.

Guzti hau ezagututa, eta abagune zein den jakinda, partida 17,3 milioietan mantentzea are

eta babes gutxiago ematea suposatzen du, azken finean murrizketa bat da. Dagoeneko pobrezia tasa altua bada ere neurri honek tasak gora egitea lortuko du.

Guzti hau gutxi balitz, etxebizitzarako prestazio osagarriari dagokionez, kopurua 250 eurotan mantentzen bada ere (alokairuaren %70eko mugarekin) bizikidetzaren unitateari ezartzen zaio. Hau da kopurua ezin izango da inolaz ere handituko.

4. NAFARROAKO GIZARTERATZE ERRENTAREN FORU LEGEA, EZTABAIDAGAI

Indarrean sartu eta urtebete beranduago, Gizarteratze Errentaren Foru Legeak nafartar biztanleriaren beharrei erantzuten ez diola argi dago. ELAk legea ez nahikoa eta murriztailea zela ulertu zuen; besteak beste, dirulaguntza kopurua gutxitu, jasotzeko aukera eta iraupena zaildu, onuradun kontzeptua mugatu eta behin onuradun izanda ezartzen ziren betebeharrak geroz eta handiagoak ziren etab. luze bat. Orain urtebete krisiak gizartearen pertsona ahulengandak eragina bazuen, pobreziaren handitzeak suposatu du gero eta pertsona eta famili gehiagok beharrak sufritzea eta ondorioz, lehen Oinarrizko Errenta zena eta gaur gizarteratze errenta moduan ezagutzen denaren eskatzaile bihurtu izana.

Antza denez, talde parlamentario guztiak bat dira egora larria dela eta premiazko neurriak hartzea beharrezkoa dela ulertzean. Horregatik azken egunetan Nafar Parlamentuan eztabaida eta ponentzi zehatzak egon dira talde bakoitzak aurkeztutako porposamenak aztertze asmoarekin.

PSN, UPNerekin bat koalizioan zeudela legea proposatu eta babestu zuenak, legea aldatzearen aldekoa agertu da, gizarteratze errentaren onuradunen esparrua hedatuz, lana galtzearen

ondorioz papelak galdu dituzten inmigranteak, 16 urtetik beherakoak beraien kargura dituzten bizikidetza unitateak, programa sozio laboraletan parte hartzen dituztenak, kasu. Bildu, NaBai, I-E, eta Geroak aldiz, lege berri baten aldekoak dira, "Gizarte eskubieen gutuna" deitu dutena, Nafarroan bizi diren herritarrei, adin eta prestazio iraupen mugarik gabe lan aukera eta oinarrizko errenta ahalbideratuz.

Datuek berez hitzegiten dute, seriok eta errealistak izan gaitetzen, ardura itxura alde batera utz dezagun behingoz. Azken urteetan, bai errenta mota hau jaso dutenen, zein langabetu eta inolako prestaziorik jasotzen ez duten pertsonen kopuruak gora egin du. Eta aldi berean nafar aurrekontuetan oinarrizko errentara bideratutako diru kantitatea murriztu egin da, 2011an 35, 8 milioi euro (BPGren %0,18) baziren 2013an 26,1 milioi euro (BPGren 0,13) izan dira. Zelan emando da beraz, babes handiago bat?.

5. CAN, HUSTELKERI ETA LAGUNENI MESEDE EGITEAREN ADIBIDE

Bat baino gehiago geratuko zen harrituta CANeko dietak direla eta 3 politikari nafar inputatuak izan direla jakitean. Harrituta, ez baitzen espero hainbeste urtetan zehar funtzionatu duen eta jende askorentzat "normala" den sistema, beraien aurka bihurtzerik.

Baina ukiezina uste denaren gehiegikeria, bere aurka bihurtzen da askotan. Eta badirudi horixe gertatu zaiela 3 inputatuei, Miguel Sanz, Álvaro Miranda eta Enrique Maya.

CANeko Batzorde Iraunkorrean kobraturiko dietengandik eman da inputazioa, eta Yolanda Barcina ere bazegoen batzorde honetan. Baina hau ez da inputatua izan, aforatua izatearren, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria izanik, Madrilgo Tribunal Gorenean epaitua izan beharko

litzakeelako.

Kasua daraman epaileak Batzorde honek oinarri legal "oso zalantzarria" duela dio. Eta sesio bikoitz eta hirukoitzetara joatearren "diru-kopuru" garrantzitsuak kobratu zirela dio, "sesio hauetariko batzuen helburu bakarra erakundearen gobernu organoetan akordio berririk eman ez izanari buruz informatuak izatea zelarik", parte-hartzaileen aldetik "inolako parte-hartze aktiborik" egon gabe. Eginkizun hauek funtzionario-eroskeria delitua izan litezke.

Foru Gobernuko, Iruñeako Udaletxeko, edo Legebiltzarreko kideak izanik, Kutxaren ikuskaritza burutu behar zuten pertsona berdinek dietak kobratzea "justifikazio zalantzarritzat" jotzen du epaileak, ez zilegitasun penal bezala kontsideratu litekeelarik.

Beste alde batetik, Kutxako arduradunen familiakoei eta enpresa parte-hartzaileei interes tipo baxuagoan eskainitako maileguak daude. Mailegu hauek ematea funtzionario-eroskeria delitua eta/edo prebarikazio izan liteke, "Kutxaren gobernu organoak osatzen zutenekin, eta beronen ikuskaritza eta funtzio disziplinarioa burutu beharko zutenekin harremana zuten pertsona zehatzak mesedetu direlako".

Nafarrako Kutxa Banca Cívican fusionatu eta Boltsara ateratzekoan emaniko ustezko kontabilitate faltsutzea ere ikertzen dago Audientzia Nazionala, eta baita Enrique Goñi, CANeko zuzendari orokor ohiaren aurkako salaketa ere.

Urte asko iraun duen jai handi baten biharamuna da CANekoa. Mota guztietako dieta eta prebendez mesedetu den nafar elite guztiaren barra librea izan da; Miguel Sanzek 225.599 euro kobratu zituen 1996etik 2009ra, Álvaro Mirandak 92.737 euro 2007tik 2009ra, José Luis Sánchez Muniainek 143.735 euro 2004 eta 2010 bitartean, Juan Cruz Allik 260.618 euro 2004tik 2012ra, Yolanda Barcinak 143.735 2000 eta 2009 artean, José

Antonio Sarriak 127.172 euro 2005etik 2012ta, e.a.

Inork ez daki nola bukatuko den histori hau, ezta aurreko Nafarroako Gobernuko Presidentea, Ekonomiako Kontseilari-ohi bat eta Nafarroako Gobernuko lehendakari orde ohi eta Iruñeko Alkatea kartzelara joango diren ere, baina argi dago erakunde egitura goitik behera errebisatu behar dela.

Larriena ez da 3 politikari eta gobernari inputatu izana (oso larria dena), larriena zera da, guzti hau ustelduriko erakunde-ereduaren parte dela. Eginkizun hauek ohikoak eta arruntak direla da larriena, ez direla salbuespen. Ez dira gertakari bakanak.

Arduradun politiko bakar batzuk enjuiziatzeak ez du ustelkeriarekin bukatzen. Elite txiki baten interesak bakarrik mesedetzen dituen eredu usteldu eta antisozialarekin amaitu beharra dago.

PSN, UGT edo CCOO bezalako erakundeek eginkizun hauen aurrean ematen ari diren erantzun motelari erreparatzerik besterik ez dago. Nafar patronalak ere ez dirudi geraturikoarekin harriturik edo arduraturik. Gizartearen kaltetan beraien interes partikularrak mesedetzeko diru publikoen banaketan eta opakutasunean oinarrituriko eredu sortu du Nafar erregimenak (UPN, PSN, PP, UGT, CCOO eta CEN). Eredu hau da CANen gertaturikoarekin argitan geratu dena. Eta hauxe da aldatu behar dena. Begi bistakoa da asko dagola egiteko.

6. TXIPREN GERTATZEN DENA, EUROPAR BATASUNAREN PARTE DA

2012ko azaroaren 23an, Txipreko Gobernuak Memorandum bat sinatu zuen Troikarekin (Europako Batzordea, Europako Banku Zentrala eta Nazioarteko Diru Funtza). Dokumentu honetan, Txipreko Gobernuak hainbat neurri burutzeko konpromisoa

hartzen du, mailegu bat lortzean truk.

Akordio horretan sinatu zena, ez zen jakitera eman, ezkutuan mantendu zen (izan ere, iturburu ofizial guztiek ukatu zuten akordio lortu izana dokumentua sinatu zen egunean). Baina akordioa sinatu egin zen, eta lan eta gizarte eskubideen murrizketa sakona martxan jartzeko neurri sorta bat bildu zuen, etorkizunean mailegu bat jasotzeko itxaropen baten truke. Hauek ziren neurrietariko batzuk: pentsio eta sektore publikoan soldata murrizketak (%12,5ra artekoak), pentsio eta sektore publikoan soldatak gutxienez 2017rarte ez handitzeko konpromisoa, pentsioak murrizteko hainbat neurri (adibidez 2018tik aurrera egonkortasuneko faktorea aplikatzeko), enplegu-murrizketa sakonak sektore publikoan, e.a. Eta gainera, maileguko diruaren etorrera geroagorako uzten zen.

Argi dago Memorandum hartan jasotako neurriek ez zutela Txipreko arazo nagusien arrazoiaren aurkako neurririk jasotzen (arazo hauek bertako finantza-sistemearekin lotura zuten). Txipreko banku sektorearen tamaina ekonomiaren tamainaren arabera izan beharko zena baino askoz handiagoa zen, eta hala da gaur egun ere. Europar Batasunaren barruan paradisu fiskal gisa funtzionatu duelako Txiprek gertatu da hau neurri handi batean, eta, ondorioz, zergak ez ordaintzeko helburuarekin, kapital asko erakarri duelako.

Beste alde batetik, Txipreko finantza-erakunde nagusien kudeaketa oso txarra izan da. Hala utzi du agerian Txipreko Unibertsitate Teknologikoko ikertzaile berezi eta Zorra Ikuskatzeko Komiteko Txipreko Iniziatibako kide Petros Kosmasek: Txipreko bankuek bere zuzendari eta akziodunei

bermerik gabe ehunka milioi euroko maileguak eman zizkieten, Grezian emandako kita aurretik bono toxikoak erosi zituztenean espekulatu eta galdu egin zuten (adibidez, Deutsche Banki kopuru esanguratsuak erosi zizkieten, Alemaniako banku honek edozein eragileri bono haiek saltzearren %5eko komisioa eskaintzen zionean. Eragiketa honekin bitartekaritza entitate batek 100 milioi euro lortu zituen).

2013ko martxoan Txipreko bankak porrot egin duenean, bertako gobernuak diru publiko asko esleitu du hau erreskatatzeko. 17.500 milioi euro bideratu nahi dira horretara, Txipreko BPGd-aren %100a (Txipreko BPGd-a Gipuzkoakoa baino baxuagoa da, hau da, 22.000 milioi euro baino txikiagoa).

Lehenengo galdetu beharrekoa zera da: arduragabekoa eta espekulatzailea den, eta zergak ez ordaintzeko kapitala erakartzean oinarrituriko banka salbatzeko, diru publikoa erabili behar da? Erantzuna argia da: ez.

Nondik aterako dira bankari emango zaizkion 17.500 milioi euroak? Txipreko gobernuari 10.000 milioi eurotako mailegua (BPGd-aren %60a) eman ahal izateko akordiora heldu zen euro-taldea joan den apirilaren 12an. Mailegu hau (interesekin itzuli beharko dena) Troikarekin Memorandum berri bat sinatzera baldintzatua dago, eta honen edukia komunikabideetara filtratu da. Neurrien artean hauek daude: urte amaiera baino lehen pentsio erreforma berri bat, osasun publikoan murrizketa gogorak (kopagoa, hainbat zerbitzutan eta tratamendutan tasa altuagoak, mediku-probetan murrizketak, ospitale publikoetan murrizketak, eta abar), sektore publikoko lan baldintza eta soldata

ordainketa ereduak aldatzeko konpromisoa (langabezia-prestazioa barne), soldata indexazio mekanismoak aldatu, egoera ekonomikoa txarra bada lanbide-arteko gutxieneko soldata murriztu, etab.

Beraz, lan eta gizarte-eskubide murrizketa neurri berriak datoz, defizita eta zor publikoa murrizteko beharrezanarekin argudiatzen direnak, hauek handitu egiten baitira bankari dirua emateko.

100.000 euro baino gehiagoko gordailuak dituztenei zerga altuak ordainaraztetik dator beste dirua. Txipren bizitako egoerak bezalakoan aurrean, europar legediak 100.000 eurorarteko kopuruak bermatzen ditu, eta diru kopuru hori baino txikiagoak ere zergapetu nahi izan zituen hasera batean Troikak. Atzera egin behar izan zuen. Kitaren zati handi bat Txipreko bankuetan dirua utzi zuten pentsio fondoek ordaindu beharko dute.

Txipren planteatu den irteerak ondorio tamalgarriak ekarriko ditu enpleguan eta biztanleriaren bizi eta lan baldintzetan, hori bai, banka salbatzen den bitartean. Urte askotan zehar gobernuaren ekintza baldintzatuko duen izugarriko zor publikoa sortuko da, eta egiturazko murrizketa plan berri bat ezartzen zaio Europako Batasuneko beste estatu bati. Jarraitu beharreko bideak hauek dira: europar politikak (Troikarenak) errotik aldatu, eta zorraren herritarren auditoria prozesu baten ondoren, zor publiko bidegabearen ordainketa zalantzan jarri. Gobernuen jokabidea ikusita, argi dago mobilizazioa dela hau lortzeko bidea.

7. PROPOSAMENA: BAI ESCRACHEI, BAI ADIERAZPEN ASKATASUNARI

“Escrache”a Argentinan sortu zen diktaduraren garaian eta 90. hamarkadan da bere erabilpena areagotu egiten den momentua. Carlos Menemen gobernuak 1995tik aurrera diktadura garaian desagertutako eta abusuak jasandakoengatik erantzunleak ulertzen zirenen erregimen militarreko ex karguak indultzeagatik herriak antolatutako kexa baketsuak izan ziren. “Corralito” garaian, 2001an berriz ere martxan jarri ziren. Peronistak ziren gazte taldeek presidentea zen Fernando de la Ruaren - “Fernando de la deuda” deitzen zuten- eta bere gobernuaz zalatzen zuten herria hondamen ekonomikora erametaz. Estatu Batuetan ere, Vicenc Navarrok aipatu bezala, politikari eta bankarien etheen aurrean escracheak antolatzea ohikoa da.

Estatu Espainiarrean, Hipotekengantik kaltetuak direnen eta Stop Desahucios plataformek ekimen berdina martxan jarri dute, escrache hitza inoiz baino entzunagoa izanik.

Orainarte ospatutakoak, Euskal Herrian baita, alderdi politikoaren egoitzetan edo politikarien etxebizitzan aurrean antolatutako kontzentrazio baketsuak izan dira. Gutxi behar izan da agintari eta politikariek mugimenduaren aurkako neurri errrepresibo eta bestelako xedeak bilatzen dituzten berbaldiak erabiltzeko, antolatzaile eta parte hartzaileei kriminalizatzeko asmo hutsarekin. Horrela ere, salaketaz, pobreziaz, etxebizitzetaz, eta horien erantzunle eta konponbideei buruz ez hitzegiteko intentzioa argia delarik.

Izan gaitzen denok arduradun, politikari jaunak. Agintea erantzunkizuna da, nahiz eta batzuten deserosoa izan. Norbera entzuteaz aparte, entzun herriari, askatasun adierazpen errespetatu, krispazioa sortu eta kompetentziak haratago

eraman gabe.

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak horrela adierazi du, plataformek Eusko Jaurlaritzak escracheak 300 metrotara egitearen erabakiaren aurka jarriko errekurtsoaren erabakian, “perimetro bat ezartzea neurriak gainditzea da” eta “biltzeko eskubidea ezin daiteke mugatu erabaki administratiboak diela medio”.

Ardura publiko bat dutenek, presente izan behar dute, beraien erabakiak despatsuetatik at eraginak dituztela. Beraien egiteen ondorioak onerako zein txarrerako onartu behar dituzte. Ez dezagun ahaztu, indarkeriarik gabeko ekintzak baino ez dira.

Intimitate eskubidea elkartaratzeko eskubidea mugatzeko aitzaki moduan erabili da. Etxebizitza pribatu baten aurrean elkartaratzeko bat “jasatzea” baino askoz larriagoa eta intimitateari gehiago erasotzen dio famili bati etxebizitzetaz, umeekin bada are gehiago. Mugimendu honen aurka kexu direnak, ez daude betere arduratuak etxebizitzetaz ekiditzeko neurririk ez hartzearekin. A ze nolako hipokrisia!

Jendea asko sufritzen ari da, eta orain inoiz baino gehiago arrazoiak, indarrak eta salaketarako gogoak ditu. Ekintza xume batek asko haserretu ditu batzuk. Galdetu diezaioten beraien buruei zergatik, norberak jasan dezala bere ekintzen ondorioen pisua, beraiena jendeari eragiten dioten kaltearekin alderatuta ez da ezer eta.